

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2010EKO OTSAILA

Euskal AEko industri jarduera % 4,4 gutxitu da 2010eko otsailean


Aurreko hilabetearekin, 2010eko urtarrilarekin, konparatuta % 0,5 jaitsi da Euskal AEko industri produkzioa

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa % 4,4 txikitu da 2010eko otsailean, 2009ko hilabete beraren aldean.

Aurreko hilaren, hau da, 2010eko urtarrilaren aldean Euskal AEko industri produkzioa % 0,5 txikitu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundera



(*) 2010eko urtarrila-otsaila bitarteko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat. Industri Produkzioaren Indizea

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2010eko otsaileko indizearen bilakaera (2009ko otsailarekin erkatuta) jaitsi egin da sektore guztietan, tarteko ondasunetan izan ezik, hauek % 3,8 igo direlako. Energiak % 20,7 egin du behera, ekipamenduko ondasunak % 7,3 jaitsi dira eta kontsumo-ondasunak, oro har, % 5,1 murriztu dira, kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (-% 1,1) eta batez ere kontsumo-ondasun iraunkorrek (-% 16,7) behera egin dutelako.

2010eko otsaileko hilabete arteko aldakuntzak (2010eko urtarrilaren aldean) ikur ezberdina izan du industriako sektore nagusietan. Energia % 8,7 txikitu da eta kontsumo-ondasunak % 0,4, hauek kontsumo-ondasun iraunkorren (-% 4,2) gutxitzearen ondorioz; kontsumo-ondasun ez iraunkorrak % 0,7 igo dira. Tarteko ondasunak % 2,0 igo dira eta ekipamenduko ondasunak % 0,7.

Lurralde historikoka, Industri Produkzioaren Indizearen urte batetik besterako otsaileko bilakaerak ikur positiboa izan du Araban (% 1,3ko igoera), baina ikur negatiboa izan du Bizkaian (% 9,4 behera) eta Gipuzkoan (% 1,5 behera). Hil arteko hazkunde-tasa negatiboa izan da Araban (% 1,1 behera) eta Bizkaian (% 2,9 behera); Gipuzkoan, aldiz, positiboa izan da (% 2,7 gora).

TAULA: 2010eko OTSAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	10 Ots/09Ots	At/At-1 (1)	10 Ots/10Urt	10Urt/09Abe
Indize orokorra: Euskal AE	-4,4	-4,5	-0,5	-2,2
Araba	1,3	1,0	-1,1	-5,5
Bizkaia	-9,4	-6,6	-2,9	0,1
Gipuzkoa	-1,5	-4,8	2,7	-2,8
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-5,1	-4,1	-0,4	-0,8
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-16,7	-12,8	-4,2	4,8
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,1	-1,3	0,7	-2,3
Ekipo-ondasunak	-7,3	-8,4	0,7	-0,9
Bitarteko ondasunak	3,8	0,7	2,0	-1,3
Energia	-20,7	-13,0	-8,7	-8,7

(1) t urteko otsailetik azken hilera arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean

Iturria: EUSTAT. Industri Produkzioaren Indizea

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística \(Eustat\)](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

[Industri Produkzioaren Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Industri Produkzioaren Indizearen datu-bankua](#)